

## Proiektuetarako jarduerak | 1. Blokea: segurtasuna sarean eta pentsamendu kritikoa aro digitalean.

Lehen Hezkuntza: 6 - 12 urte artean

### Jarri zure lizentzia museo birtualean



### JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Ikasleek dauden egile-lizentzia mota desberdinei buruz ikasiko dute, beren artelanak elkarlanean sortuko dituzte nazioarteko talde mistoetan, museo birtual batean erakutsiko dituzte eta, TwinSpace-ko foroa erabiliz, obrei zer lizentzia mota emango dieten erabakiko dute.

### JARDUERAREN HELBURUAK

- *Copyright, Copyleft eta Creative Commons* lizentzien arteko ezberdintasun nagusiak ezagutzea.
- Besteen lana aintzatetsi eta errespetatzearen garrantziaz kontzientziatzea.
- Nazioarteko talde mistoetan elkarlanean aritzea.

### GAKO KONPETENTZIAK ETA ZEHARKAKO GAIAK

- Konpetentzia sozial eta zibikoak
- Konpetentzia digitala
- Hizkuntza-komunikazioa
- Ikasten ikastea
- Kontsumitzailearentzako heziketa

### CURRICULUMENKO EDUKIAK

- Egile-eskubideak eta erabilera-lizentziak.
- IKTak eraginkortasunez eta arduraz erabiltzea informazioa bilatu eta ekoizpenak aurkezteko.
- Sarean informazioa bilatzea.

### INKLUSIO-ALDERDIAK

Ikasleek taldeka lan egingo dute. Laguntza gehiago behar duten ikasleentzat, berdinen arteko laguntza-metodologia bat proposatuko da.

### AURREIKUSITAKO PRODUKTUAK / EMAITZAK

- Marrazki kolaboratiboak dituen museo birtuala.

## JARDUERAREN GARAPENA

### ALDEZ AURRETIKO PRESTAKUNTZA

#### 1. fasea. Erregistroa.

Irakasleek ikasleei kontuak sortuko dizkiete TwinSpace-n sartzeko.



Tutoriala: [Nola gonbidatu ikasleak TwinSpace-ra](#)

TwinSpace

#### 2. fasea. Foroan eztabaidak sortzea.

«Foroa» atalean, irakasleek eztabaida bat irekiko dute ikastalde bakoitzarentzat, *Lizentzia* tituluarekin.



Tutoriala: [TwinSpace-ko foroak](#)

TwinSpace

#### 3. fasea. Orri nagusia eta azpi-orriak prestatzea.

Dozenteeek bost orri sortuko dituzte TwinSpace-n.

Lehenengo orrialdean proiektuaren plangintza jasoko da: helburuak, denboralizazioa, jarduerak, ebaluazioa, etab.

Bigarren orrialdean, parte hartuko duten ikasleen irudi- eta grabazio-baimenak egongo dira.

Hirugarren orrialdean ikasleek sortutako marrazki guztiak igoko dira. Laugarren orrialdean esteka kopiatu edo museo birtuala txertatuko da.

Azken orrian jardueraren ebaluazioa partekatuko da.




Tutoriala: [Nola sortu jarduera-orri bat](#)

TwinSpace

## PRAKTIKAN JARTZEA


### 1. fasea. Lizentzia-motak azalduko ditugu (1 saio)

Irakasleak egile-eskubideak zer diren, lizentziak zer diren eta *copyright* eta *copyleft*-en arteko desberdintasunak azalduko dizkie ikasleei. Orrialde honetan kontsulta daiteke (gaztelaniaz):



[Licencias y autoría |intef.es](http://licencias.y.autoria.intef.es)

Ondoren, irakasleak erabiltzen den lizentziarik ezagunenetako eta doakoenetako bat aurkeztuko du: *Creative Commons*.



[Sobre las licencias - Creative Commons](#)

Ondoren, irakasleek talde mistoak sortuko dituzte bi ikastetxeetako ikasleekin. Lantaldeak ikastetxe bakoitzeko bi ikasle osatuko dituzte, eta irakasle batek koordinatuko du taldea. Horretarako, taula bat sortuko da eta TwinSpace-ko <<elkarlaneko marrazkiak>> orrian partekatuko da.



### 2. fasea. Artelanak sortuko ditugu. (2 saio)

Ikasleek proiektuko kideekin elkarlanean sortuko dituzte artelanak: eskuzkoak edo digitalak izan daitezke.

Obra digitalen kasuan, ikasleek linean marrazteko tresna kolaboratibo hauetakoren bat erabil dezakete:



Eskuz margotutako lanen kasuan, ikastetxe bateko ikasleek marrazki bat hasiko dute, eta irakasleak ikasleen obra guztiak beste ikastetxe batera bidaliko ditu postaz, kideek amaitu ditzaten.



### 3. fasea. Foroan ados jarriko gara. (1 saio)

Ikasleak forora sartuko dira eta gainerako kideekin artelanari zer lizentzia-mota emango dioten erabakiko dute.

TwinSpace

Ikasleek aukeratutako lizentzia-mota gehituko diote marrazkiari, eta TwinSpace-ko «marrazkiak» orriko horma digitalean (*TwinBoard*) partekatuko dute.

TwinSpace

### 4. fasea. Museoan barna (1 saio)

#### **Prestatzea:**

Dozentek museo birtualean marrazkiak kokatuko dituzte, *Artsteps* edo antzeko tresnaren bat erabiliz.



Ondoren, museo birtualerako esteka txertu edo partekatuko dute TwinSpace-ko «museoa» orrian.

TwinSpace

#### **Jarduera:**

Irakasleek museo birtuala erakutsiko diete ikasleei eta bertan barna paseatuko dute ikaskide guztien artelanak miresteko.



## EBALUAZIOA

### Lineako galdetegia. (1 saio)

Irakasleek galdesorta bat prestatuko dute lizentzia-motei eta proiektuaren garapenari buruz. Quizizz edo antzeko tresnaren bat erabil dezakete.



## JAKITERA EMATEA

Jarduera zabaltzeko, TwinSpace-ko esteka partekatu daiteke ikastetxeak dituen sare sozialetan (Facebook, Instagram, Twitter, etab.) edo ikastetxearen webgunean edo blogean. Emaizak Internet Seguruko jardunaldietan ere parteka daitezke, otsaileko lehen astean.

## TWinspace-KO TRESNAK/ KANPOKO 2.0 TRESNAK

TwinSpace: orriak, materialak, foroa eta partaideak.



Beste tresna batzuk:

- Marrazki kolaboratiboak sortzeko tresnak: [Witeboard](#), [SketchTogether](#), [TrazosCLUB](#) eta [Colorillo](#).

<<https://witeboard.com/>>

<<https://sketchtogether.com/>>

<<http://trazos.club/info>>

<<https://colorillo.com/>>

- Museo birtuala sortzeko tresnak: [Artsteps](#)

<<https://www.artsteps.com/>>

- Ebaluatzeko tresna: [Quizizz](#)

<<https://quizizz.com/>>